

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak hitzarmen bat sinatu du Microbank-ekin ekintzaileei finantzaketa errazteko

Finantza-erakundeak milioi bat euro arteko kreditu-lerro bat irekiko du Nafarroan, eta NEZek ekintzaileei aholkularitza eman eta haien proiektuak aztertuko ditu

Viernes, 24 de febrero de 2012

Nafarroako Gobernuaren Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen kontseilari Lourdes Goicoecheak eta La Caixako erakundea den [MicroBank](#)-eko zuzendari nagusi Albert López-ek, lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu dute gaur goizean ekintzailatza-jarduera pizteko, finantzaketa sustatzeko eta hura ekintzaileei errazteko; horrekin batera, negozio berriak abian jartzen ere lagundu nahi da hitzarmen horren bidez, enpleguaren sorrera eta finkatzea bultzatzeko asmoz.

Por este convenio, MicroBank llevará a

Hitzarmen hori dela eta, MicroBank-ek milioi bat euro arteko kreditu-inbertsio bat egingo du Nafarroako Foru Erkidegoan eta [Nafarroako Enplegu Zerbitzuak \(NEZ\)](#) konpromisoa hartzen: negozioak sortu edo finkatzeko autonomo nahiz enpresa txikien finantzaketa-beharrak hautemateko; ekintzaileak informatu, aholkatu eta prestatzeko enpresa-proiektu baten garapenean; enpresa-proiektuak aztertu eta bideragarritasun-txostenak egiteko eta ekintzaileak MicroBank-era bideratzeko mikrokreditua emateko azterketa egitea aldera, hala badagokio.

Kredituen baldintzak

Mikrokredituak gehienez ere 25.000 eurokoak dira, inbertsioaren % 95a gehienez ere. Haien eskuratu ahal izango dituzte, autoenplegurako proiektua duten pertsona fisikoek, 60.00 euro arteko urteko errenta duten autonomo profesionalek, pertsona juridikoek (10 langile baino gutxiagoko enpresak eta urtean 500.000 euro baino gutxiagoko fakturazioarekin).



Goicoetxea kontseilariak eta MicroBank-eko zuzendari nagusi Albert Pérezek hitzarmen bat izenpetu dute eta, haren bidez, milioi bat euroko kreditu-lerro bat irekitzen da Nafarroan enpresario txiki eta autonomoentzat.

Finantzaketa-epeak 60 hilabetekoak dira hautazko gabealdiko 6 hilabeteak barne.

MicroBank-en aldetik maileguak emateko irizpideak mailegua eskatzen duen pertsonarengan duen konfiantzari erreparatzen dio eta baita proiektuaren bideragarritasunari ere, eta berme nahiz abalik gabeko pertsonak jaso ahal izango dute. Nahitaezko baldintza gisa, enpresa-plan bat eman behar da eta baita Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egindako bideragarritasunaren aldeko txosten bat ere.

Goicoechea kontseilariak azpimarratu duenez, jarduera ekonomikoa sustatzeko arazo nagusietako bat finantzaketa falta da eta, horregatik, "Gobernu, enpresa, finantza-erakundeok jarduera hori bultzatzeko lanean jarraitu behar dugu".

Microbank

MicroBank-ek bere jarduerari ekin zionetik, 827,3 milioi euroko 131.921 mikrokreditu eman ditu. Nafarroan, iragan urtarilaren amaiera arte bankuak 4,4 milioiko balioa duen 658 mailegu eman ditu.

Alde batetik, ekintzaileei gehienez ere 25.000 euroko mikrokredituak errazten dizkie, eta horien hartzaileak autonomoak, enpresario txikiak eta ekintzaileak dira; bestalde, mikrokreditu pertsonal eta familiarak ematen ditu helburu batekin: aldi baterako zailtasunak gainditzen laguntzen duten familiako beharrei erantzutea eta garapen pertsonala eta familiarra erraztea.

Finantza-erakundeak eman dituen ekintzaileentzako mikrokredituen % 60a enpresak sortzeko bideratu da, eta gainerako % 40a jada eratuta dauden mikroenpresen hazkunde-beharrak finantzatzeko. Bestalde, mikrokreditu pertsonalak erakundeak emandako operazioen erdia baino gehiagoa dira gaur egun.